# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5217

*1724/2022 EBAZPENA, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Asier Esnal Albizu jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendari kargutik kentzen den.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 27ko 734/2014 Ebazpenaren bidez (uztailaren 14ko EHAA 132. zk.), Asier Esnal Albizu jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari izendatu zuten.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Asier Esnal Albizu jauna Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko Ekonomiako eta Finantzako zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko azaroaren 13ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau jakinaraztea interesdunari eta Debabarreneko Erakunde Sanitario Integratuko.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 11.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.